

3/2013 JARRAIBIDEAK**NORK: ZUZENDARI NAGUSIA****NORI: ZERBITZU ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA GERENTZIAK**

GAIA: ALDI BATERAKO NEURRIAK NAHITAEZKO ERRETIROAREN ETA ZERBITZU AKTIBOA LUZATZEKO BAIMENEN GAINEAN, GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PLANA INDARREAN JARRI ARTE

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Giza Baliabideak Antolatzekeo Plana izapidetzen ari da gaur egun, erretiroaren eta zerbitzu aktiboa luzatzearen gainean. Plan horren lehen zimborroa Mahai Sektorialak 2013ko uztailaren 8an izandako bileran aurkeztu zen.

Behin onartu eta indarrean jarri ondoren, Plan horrek gai horretan orain arte izandako egoera aldatu dezakeenez, komenigarria da aldi baterako neurriak hartzea, nahitaezko erretiroaren eta zerbitzu aktiboa luzatzearen gainean, jarraibide hauek onartzen diren egunetik Giza Baliabideak Antolatzekeo Plana, erretiroaren eta zerbitzu aktiboa luzatzearen gainekoa, indarrean hasten den egunera arte.

Bestetik, kontuan hartu behar dira Lan arloko Epaitegiek emandako azken epaiak, erretiro-pentsioa jasotzea ahalbidetzen dien adina izanda, zerbitzu aktiboa luzatzea eskatu zuten lan-kontratudun langileen erretiroari buruz. Izan ere, epai horiek baliogabe edo bidegabekotzat jotzen dituzte lanpostu-gabetze horiek, eta kaleratzeak direla diote. Beraz, gai hori Osakidetzan izaera orokorrean jorratu arte, neurriak hartu behar dira, eपाileek erabakitakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, jarraibide hauetan datozen aldi baterako neurriak hartu behar dira.

JARRAIBIDEAK:

1.- Estatutupeko langileek, funtzionarioek eta lan-kontratadunek, erretiro-pentsioa izatea ahalbidetzen dien adina izanda, zerbitzu aktiboa luzatzea eskatu ahal izango diote Zuzendaritza Gerentziari, Jarraibide hauek indarrean hasten diren egunetik Giza Baliabideak Antolatzekeo Plana, erretiroaren eta zerbitzu aktiboa luzatzearen gainekoa, indarrean hasten den egunera arte. Idatziz eskatu beharko da, eta 65 urte bete aurretik edo erretiro-pentsioa jasotzeko Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako adina bete baino lehen. Zerbitzu-erakundeetako Zuzendaritza Gerentziek zerbitzu aktiboa urtebetez luzatzea baimenduko dute, muga 70 urte betetzen diren eguna izanda. Horretarako, interesdun pertsonak gaitasun funtzionala egiaztatu beharko du bere lanbidean jarduteko edo bere izendapenari dagozkion jarduerak garatzeko.

Interesdun pertsonak urtebete baino denbora gutxiagoz luzatzea eskatuz gero, luzapena eskatutako aldirako baimenduko da.

Interesdun pertsonak edozein unetan uko egin ahalko dio emandako luzapenari, zerbitzu aktiboan dagoen zerbitzu-erakundeko Zuzendaritza Gerentziari eskatuz, eta honek aldeko erabakia hartuko du luzapen-ukoari dagokionez.

Nahitaezko erretirorako adina betetzean, interesdun pertsonari kotizatzeke 6 urte edo gutxiago geratzen zaizkionean, erretiro-pentsiorako eskubidea izateari begira, luzapena baimendu ahalko zaio, erretiro-pentsiorako eskubidea izateko behar den kotizazio-denbora bete arte, pentsio horren zenbatekoa edozein dela ere.

2.- Zerbitzu aktiboa luzatzeko ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio eskatu duenari. Era berean, ebazpen hori Giza Baliabideak kudeatzeko sisteman jasoko da (8W egintza, 01 arrazoia). Luzapenak 65 urte bete eta hurrengo egunean izango du hasiera, edo erretiro-pentsioa jasotzeko Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako adinaren biharamunean.


3.- Interesdun pertsonak, erretiro-pentsioa jasotzeko adina bete aurretik, luzapenik idatziz eskatu ez badu, nahitaezko erretiroa emango zaio ezinbestean. Horretarako, erretiro-ebazpena jakinaraziko zaio, eta Giza Baliabideak kudeatzeko sisteman jasoko da (82 egintza, 03 arrazoia).

Informazioa emateko helburuarekin, nahitaezko erretiroa emateko baino 3 hilabete lehenago, gutxienez, zerbitzu-erakundeetako Zuzendaritzek, zeinek berean, nahitaezko erretiroaren egunaren berri emango diete hala dagokien langileei.

4.- Jarraibide hauek indarrean hasten diren egunean zerbitzu aktiboaren luzapena baimenduta duten eta Giza Baliabideak Antolatzeke aipatutako Plana indarrean hasi baino lehen amaituko zaien langileek zerbitzu aktiboaren beste luzapen bat izan ahal izango dute, Jarraibide hauen 1. puntuari ezarritakoaren arabera.

Beste luzapen hori emateko, interesdun pertsonak idatziz eskatu beharko du, aurrekoa amaitu aurretik, eta gaitasun funtzionala egiaztatu beharko du bere lanbidean aritzeko edo bere izendapenari dagozkion jarduerak garatzeko.

5.- Jarraibide hauek 2013ko uztailaren 29an jarriko dira indarrean.



 **Osakidetza**
Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 26an
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL

Iz.: JON ETXEBERRIA CRUZ
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA